

ANEZKA-Enpleguko eta ekintzailatza solidarioko anezken programa

<p>Helburua</p>	<p>DEMA-Enpresa Garapenak, Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako enpresa sorkuntzarako eta garapenerako sustatutako agentziak, Meatzaldeko lehenengo anezkan izena emateko epea ireki du irailaren 25era arte.</p> <p>Anezka bat langabeen talde heterogeneo bat da. Taldekideek espirtu dinamikoa, konprometitua eta solidarioa dute, eta borondatez eta kontraprestazio edo ordainik gabe parte hartzen dute ekimen honetan. Koordinatzaile batek lagunduta, euren gaitasunak indartzen dituzte, ezagutza kolektiboa sortzen dute, euren burua ikusgai egiten dute eta elkarri laguntzen diote helburu komun bat lortzeko: norbere kontura edo besteren kontura lana lortzea. Parte-hartzaileek borondatez jardun beharko dute anezkan eta parte-hartze horrek ez die inolako ordain ekonomikorik ekarriko. Anezkak dirauen bitartean, bai asistentziari dagokionez baita parte-hartzeari dagokionez ere konpromisu gradu altua eskatzen dio programak parte hartzaileari.</p>
<p>Anezkaren edukia eta garapena</p>	<p>Hogei laguneko talde batek osatuko du Anezka, denek langabeak edo enplegua hobetzeko prozesuan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egon behar dute.</p> <p>5 hilabeteko iraupena izango du (parte-hartzaileekin zuzenean jarduteko iraupena), eta jarduera nagusiak hauek izango dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> Sailka lan egiten den talde-saioak, talde dinamikak, prestakuntza-saio laburrak eta lan taldeko bestelako ekintzak. Koordinatzailearen eskutik parte-hartzaile bakoitzari egokitutako saioak izateko aukera. Harreman zuzenak enprekin eta giza baliabideen arduradunekiko tailerrak. Foro, topaketa eta halako ekitaldietan parte hartzea eta antolatzea. Enpresa ekintzailatzari buruzko lantegiak. Saioak; astean 4 egunetan, 4 ordukoak.
<p>Parte hartzeko baldintzak</p>	<p>Parte-hartzaileek baldintza hauek bete eta egiaztatu beharko dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> Adin nagusikoak izatea. Parte hartzen duten udalerriren batean bizitzea eta bertan erroldatuta egotea. Langabetu bezala edo enplegua hobetzeko prozesuan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egotea. Informatikaren oinarrizko ezagutzak izatea (word eta internet erabiltzea). Gaztelania edota euskara menderatzea. Beste enpleguko anezka batean parte hartu ez izatea.
<p>Izen-ematea</p>	<ul style="list-style-type: none"> DEMA-Enpresa Garapenaren webgunean (www.dema.eus) dagoen eskaera-galdeketa bete beharko du interesdun bakoitzak eta horrekin batera curriculum vitae erantsi. Era berean, DEMA-Enpresa Garapenaren bulegoan ere eskaria betetzeko aukera egongo da (Fanderia kalea, 2, Barakaldo).
<p>Epeak</p>	<p><u>Eskabideak aurkezteko epea</u>: 2016ko irailaren 25a arte.</p> <p><u>Anezkaren garapen aktiborako epea</u>: 5 hilabetez, 2016ko urriaren 4tik 2017ko martxoaren 10era</p>
<p>Hautatze prozesua</p>	<p>Izena emandako pertsona guztiei bilera orokorrera deituko zaie programari buruzko informazioa emateko eta izan ditzaketeen zalantza guztiak argitzeko. Helburua informatzea da eta eskatzaileek hautatze-prozesuan jarraitzea ala ez erabakitzea. Geroago, baldintzak betetzen ez dituzten eskariak baztertutakoan, taldekako elkarrizketak, edota elkarrizketa indibidualak egingo dira.</p> <p>Beraz, hauexek izango dira hautatze prozesuaren mugarriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Sartzeko baldintzen egiaztatzea Curriculum baloratzea Taldekako elkarrizketak edota banakakoak <p>Aukeratutakoak izan ez direnei ere prozesuaren berri emango zaie telefonoz edo posta elektronikoaren bidez.</p> <p>Behin aukeratutakoa izanez gero honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:</p> <ul style="list-style-type: none"> NANaren kopia Lanbide-k luzatutako agiria Bizitza laborala Erroldatze-ziurtagiria
<p>Herriak</p>	<p>Abanto-Zierbena, Muskiz, Ortuella, Trapagaran eta Zierbena.</p>